

Maratoia ate joka



Hilaren 25ean, igandea, aurtengo maratonia jokatu da eta urtero bezala, afrikarrak izango dira fabrikatzaile nagusiak.

Antolatzaileen aurtengo helburua lasterketan marka ona ezartzea da. Izan ere, azken urteotan eguraldiak ez du horretan batere lagundu. Ikusi beharko oraingoan!

Atletiko-EHU, tinko

EBA mailan ari den saskibaloi taldeak ondo ekin dio denboraldiari. Talde donostiarrek EBA mailara igotzea lortu zuen iaz eta aurtengo denboraldian, bederatzi jardunaldi jokatu ondoren, bost partidu irabazi ditu eta erdiko postuetan dago.



Koka eta Unanue aurrez aurre

Mikel Unanue aňorgatarrak eta Juantxo Koka altzatarrak elkarren aurka jokatu dute larunbatean, hilak 17, Atano III frontoian. Partidua lau 1'erdiko txapelketakoa da. Bi donostiar aurrez aurre: zorte on biot!



Bera-Bera onenen pare

Akaba Bera-Bera eskubaloit taldeak bikain ekin dio denboraldiari. Zazpi jardunaldi jokatu dira dagoeneko eta donostiarrak lidergoan daude beste bi talderekin batera. Neska hauek, ordea, ez dute alferrikako ametsetan galdu nahi.

Raul Perez

Bera-Beraren denboraldi hasiera ez da nolanhikoa izan. Taldearen oinarria, azken denboraldietan bezala, Amaia Ugartemendia beteranoak, Tati Garmendiak eta Eme Lopezek osatzen dute. Neska donostiarrek partidu bakarra galdu dute orain arte, Valentziako Ositoren kontrakoa, alegia. Hala ere, joan den igandean egundoko lana egin eta gero, Reyes Karrera neskek Elda talde indartsua gaingitu zuten Bidebietan, emozioz betetako norgehiagokan. Azken garaipen honi esker, Bera-Bera lehenengo postuetara iritsi da.

Duela hiru urte Santanderretik iritsita-ko Veronica Cuadrado jokalaria taldea oso pozik dagoela diosku: "Eldaren aurkako garaipenak bi puntu eman dizkigu, baina baita konfiantza ere, txapelketako talde indartsuenetakoa mende hartu dugu eta". Azken denboraldietan Bera-Bera poliki-poliki goraka doa, eta emaitzak hobekuntzaren seinale dira. "Duela urte batzuk talderik onenei irabaztea

ezinezkoa zen erabat. Orain, berriz, ondo jokatu gero ezustekoren bat eman dezakegu", adierazi digu Veronicak.

Helburua argi

Neska donostiarrek hasiera bikaina egin duten arren, argi dute zein den beraien helburua, ez dute, oraingoz, gorago begiratu nahi: "iaz baino gutxiago sufritu nahi dugu Europara joateko. Lau garren postua dugu helburu. Gorago iristeko partidu guztietan joan den igandekoan bezala jokatu beharko genuke eta intentsitate horrekin aritzea ez da erraza", dio Veronicak. Dena dela, Bera-Berak ilusio handiz ekingo dio Europako txapelketari urtariletik aurrera. Joan den urtean Danimarkako ordezkariaren aurka amore eman behar izan zuten, nahiz eta etxean partidu biribila egin zuten. Aurten Esloveniako talde bati aurre egin beharko diote eta Veronicak dioenez, "lan polita egin eta joan den urteko zapora gazia gozatu nahi genuke".

